

Familiaren sortzea Ahatsarat itzuli ondoan eta etxekoen osagarri arrangurak

E.: xu hemen esposatu xinden, ez?

M.: ba, ba, ta gero abia... haat joan gogo ginixin,

E.: eta azkenian...

M.: eta gero, hemen koinatak bear zien soldadogoa in, ta Algerian urte bat iteko partez, hiru urte in zitien, eta hirugarren urtian, ene aitiarreba airegaxtoak garbitu zien.

E.: airegaxtoak?

M.: ba, ni zazpi metra at-o, ni lurreat erori nintzan, jaikitzen niz, “kusi duzu au?” ta hua lurrian zen, bena ua seko ila.

E.: ze lotseria!

M.: ba, xixpa gora atxikitzen zien ola, eta altzairiak hartzen diela erraiten dute, eta hau dena xeatia zien, dena, oui, oui, ta geo ala, gero hua soldadogoa urte bat iteko partez, hiru in zitien, ta gero guk, jaanik, bi haur bagintien, ta geo amak ez gintien utzi nai joaiteat, hemengo amak, ama Maianak.

E.: noaitek ere behar bitzien...

M.: ba, ta geo nik e ama bezala maite nien, zeren hemen egona nintzan hiru-lau urte, eh, jakizazu eta eskolan ibiltzian, adin bera ginen, voilà, anitzek erten daate: “aisa jin iz”, ba bixtan dena, ezautzen nitien etxeko familian, jaanik denak. Gerla denboran, baizu, eta ardura jiten zien etxeko aurride guziak, eta denak ezautzen nitien, eta haurrian ze erten duzu zuk e, otto ta ttantta etxeko hurrek bezala, ordian ala, Ameiketaik jin ta esposatu, ta berriz segitu denak, ba, ba.

E.: bon, bon, eta gero behietat pastu xinden?

M.: zonbaitzuk ez dute amaiarrebari re ama erten al! Nik, aisa, leen egunian berian erran dut, gustian.

E.: baxinien konfiantxa, har...

M.: ba, ta aita re ba berdin, banakien nor zien.

E.: untsa. Hori re gauza handia uxu,

M.: ah ba, ba.

E.: beraz, gero behietaat pastu ardiak utzirik?

M.: Eh?

E.: gero behietat pastu xinela...

M.: ba, ardiak e atxiki tuu, ba, zeen aitak bazitien ardiak, ta hua jiten zen, negian hemengo bazkak jaten zitien, louatzen, ta geo hua re... beti segitu du, bena hua re, donc, aitiarreba galdu nien ekaiñain hoita lauan, eta aita, berriz, galtzer nien ondoko urtarrilian, eta tansionia bazien, eta hémorragie cérébrale-aikin erori zen auzoan, xerri bat ikustera joan-eta, erosteko, baizu, hiltzeko.

E.: lehenoz ez bitzen hanbeste miriku, eta hola.

M.: ba, ez baitzen joaiten, burutimenez zen beti, burutimenez zen, bena ez zen joaiten, aspirina ar-eta, (...) animaleko tansioniaikin zen, menturaz bost sei ilaite artan, baizu, ta gero are, eta egon zen, erori baitzen hor auzoan, eta ordian hunat ekarri ginien, ta hemen ganberan jautsi gabe ganbaran egoiten zen eta bo, hiru-lau ilaite. Medikiak salbatu zien, eta orratza sartuz, baizu, eta hor à la colonne vertébral, eta hurrupatu zakon odol naaste bat, ta harek sofrikarioak eztitu, ta ni afaldia nintzan, ta ua etorri zelaik, nik bear nien aita atxiki niaun kontra, ta ni hain atxikitzen, eta hua bestia, ezin junta atxemanen medikia, eta erreumatismaikin vertebrak aantxu soudatiak zitien aitak, ta xixta-xixta, ta koño, azkenian ene afaria inguruka, aitak ez zien trenpu txar eta nik ba, ikusiz hua orratz aundi oriek sartzen, eta azkenian erreusitu zien sartzia, eta tiatu zien, eta rosé-rosé-a atea zen, xui-xuria bear du atea, baizu, bizkar-ezurreko arek, jus arek, eta rosé, hara, hémorragie cérébrale-a hor, ta “unek goxatuko ik”, ta oren baten buruko aita goxatu zen.

E.: xu re!

M.: ta ba, ta nik ez nien goiti bota, bena hartanokoa ba, oit niz.

E.: ni ere ez nuxu bate hun.

M.: bestia xixta-xixta orratz aundi oikin, ta aitak ez zien atxez ere erten, goorra zen ba, ta geo beti bear zien egon ganberan gelgi-geldia, ta geo, bixtan dena, ardiak e emen gintien borta aitzin... Bo oai aatxeteia da, hor ardiak erditzen, ta marrakak intzuten zitien, ordian ardiak sartzen ari zelaik-eta, jaikitzen zen eta errido artetik beatzen zien ardier.

E.: ardier. Hori zixin arregura hak, eh!

M.: arregura edo kuraia emaiten bere ardien ikustea, nok daki

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala